

Martin Ugalde, maisu

[Egile ezezaguna]

Euskaldunon Egunkaria, 1999-12-16: 2.

Martin Ugalde *honoris causa* doktore izendatu zuen atzo Euskal Herriko Unibertsitateak. Kazetaria egin zuten doktore. Venezuelako erbestean *Cuando los peces mueren de sed* erreportaia bilduma idatzi zuena, Caracasko *Elite* aldizkarian erredaktore buru izan zena. *Zeruko* Argia-n euskara batuaren auziari buruz elkarrizketa sorta sonatu hura egin zuena, *Deia* egunkarian euskarazko atalaren arduradun izan zena. *Hablando con los vascos* elkarrizketa liburua argitaratu zuena. Hasiera-hasieratik euskarazko egunkariaren aldeko apustu garbia egin zuena saritu zuen atzo EHUK. EGUNKARIAko ohorezko lehendakaria.

Idazteko askatasunarekin egin zuen topo Venezuelako erbestean eta, behe-behetik hasitako lanaren poderioz, sona handia lortu zuen Martin Ugaldek Venezuelako kazetarigintzan eta literaturgintzan. Han egin zen kazetari, han egin zen idazle eta, gainera, han sortu eta hazi zuen familia.

Baina ospea eta segurtasun ekonomikoa bazter batera utzi, Ana Mari emazte nekaezinarekin batera familia hartu, eta Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen Martin Ugaldek, frankismoaren zapalkuntza bizi zuen jaioterrira. Eta beste lan askorekin batera, euskara idatzian jardutea hartu zuen bide –artean menperatzen ez bazuen ere–, eta euskarazko komunikabideak bultzatzea helburu. Eta EGUNKARIA n bukatu du, bere ibilbideak eskatzen zuen bezala.

Martin Ugalde euskal kazetarigintzan aitzindari dela esan zuen Salaburuk. Bere ibilbidea eredu dela, Ibarretxek. Martin Ugalde maisua da kazetarigintzan. Eta bizitzan.